

PASAIKO TOPONIMIA LIBURUAREN AURKEZPENA

Egoitza, 1992.10.23

Angel Mari Elortegi

Jaun-andreok, arratsaldeon denoi. Mila esker hona etorri zareten guzti-guztiori, agintari, euskaltzain, herritar, lagun eta gainontzekooi.

Lan honi heltzean bi asmo izan genituen gogoan: batetik, lanak izan zezakeen interes linguistikoa, hau da, Pasaiaiko Toponimian eskuartze zuzena izan duten euskal eta gaskoin hizkuntzen auzitarako material berriak aportatzea; bestetik, eta ikuspegi praktikoagoko batetik begira, gure begien aurrean, zaharrekin batera, badoazen eta mendetan iraun duten toki-izenei eusteko premia. Urteotan, eta Pasaian euskarak izan duen atzerakadaren ondorioz, betikotzat ematen ari dira urte gutxi batzu baino ez dituzten toponimoak, zaharrak bide bazterrean uzten diren bitartean.

Lana, beraz, horixe zela eta, hasi genuen. Hasi, ordea, ez genuen hutsetik hasi. Izan ere, Pasaia izan baitu orain baino lehen, nahiz eta beste jakintza arlotan ibili, berataz aritu den ikertzailerik. Hemen, Camino, Gamón, Seoane y Ferrer, Iturrioz, Felipe Barandiaran eta abar luze bat aipatu beharko genituzke. Eta denon artean inor nabarmentzekotan, Serapió Múgica nabarmendu behar, bera izan baita darabilgun gaira gehien hurbildu dena. Liburuan zehar hauon guztion testigantzak aurkituko dituzue.

Liburu honetan hiru Pasaietako toponimia jaso da.


Gure helburua, toponimo-bilduma ahalik eta zabalena egitea izan da, egungo toponimoak eta baita soil-soilik dokumentu zaharretan aurki daitezkeenak ere jasoz.

Erabili dugun metodologia halako lanetan ohizkoa dena izan da. Lehen-lehenik idatzizko iturrietara jo genuen, honako artxibo hauek arakatu genituelarik:

– Artxibo Munizipalak. Pasaiakoa eta, neurri txikiagoan, Donostia, Hondarribia eta Errenteriakoa. Bertan jaso ditugu toponimorik zaharrenak: XIV, XV eta XVI. mendeetakoak.

– Eliza-Artxiboak. Gehienbat, San Pedro eta San Juango bataio eta ezkontza-liburuak. XVI. mendeko toponimoak.

– Oñatiko Protokolo Artxiboa. Hemen, Pasaiaiko hipoteka-kontaduria liburuak, transmisioak, eta bere eskribaniak ikusi ziren. Donostia nahiz Errenteriako zenbait eskribania ere ikusi genituen Pasaiarekin zerikusirik bazutelako. XVII, XVIII, eta XIX. mendeetako toponimoak dira.



– Donostiako Jabego Erregistroa. Pasaiako liburuak XVIII, XIX eta XX. mendeetako toki-izenak.

– Eta azkenik, Madriliko Itsasuntzi Museoaren Artxiboa. Han, Vargas Ponce-ren dokumentu bilduma interesatu zitzaigun.

* * *

Ondoren eta, artxibo hauetan Pasaiari zegozkion toponimoak jaso eta gero, bi hirigune historikoetan, San Pedro eta San Juanen alegia, inkesta pertsonalak egin ziren dokumentuetako toki-izenak ezagutu edota berririk ba ote zerabilten ikusteko.

Azken pausu bezala, mapetan jarri ziren gogoan ziren toponimoak, eta gogoan ez baina dokumentuaren bidez hura posible egiten zuten toponimoak ere bai.

Labur bilduz, esan genezake, toki-izenari buruzko dokumentu aipamenak eta mapetan kokatu ahal izateko egin diren oharrak direla ikerketa lan honen ardatza; haren osagarri gisa, hainbat toponimori ohar linguistiko bat erantsi diogu gehien-gehienetan Mitxelena, Azkue, Corominas eta abar baten eskutik.

* * *

Pasaia, XIV. mendean arrantza egitera etorritako gaskoin jendearen eskutik sortu zela esan zuen Gamón historigileak. Eta Camino-k, XVIII. mendean bukaeran, gaskoinek ekarri zuten hizkuntza hartaz ari zela zera zioen:

“...pues sólo ha quedado y es usual dicho dialecto en ambos Pasajes, y de allí a menos de cuarto de legua, nada entienden semejante idioma.”

Bada, bertan erabilia izan zen hizkuntza batetaz ari garenez, ez da harritzekoa izango hark toponimian ere bere eragina izatea, euskal hizkuntzarekin batera. Horrela, XIII. mendeko dokumentuetan “puerto de Oyarçoz” bezala ezagutzen genuena, XIV. neko batean, jadanik, honelaxe azalduko zaigu:

“...puerto del Pasaie, llamado de Oyarçoz” (1374).

Portu horretan, bere berezitasun geografikoak bultzatuta-edo, garraio mota bat desarroitatu edo garatu zen portuko itsasertzak elkarrekin lotzeko. Itsasoz eta batelen bidez egiten zen garrio hau toponimo nagusiarekin estuki uztarturik azalduko zaigu. Victor Hugok, Pasaian bidaiari, esaten zuen hemen gizonezkoak portuaz kanpora ateratzen zirela arrantza egitera, eta emakumezkoak, portu barruan, jendearen eta bestelakoren garraioan, “pasatu” egiten zituztela ertz batetik bestera pasa nahi zuten pertsonak oro. Haien azterrenetako batzu:

“...chalupa de Marigozo” (1679).

“...dijo que se llama como arriba se menciona, Brixida de Igarza, es natural y vecina de la Villa del Pasaxe, de edad de sesenta años poco mas o menos, su modo de vivir es el de ocuparse en conducir gentes y demás que ofrezca en batel...” (1770).

Baina itzulirik, berriz ere, toponimoetara esan dezakegu toponimorik zaharren artean klase askotakoak aurki ditzakegula: badira badia ondo-ondoko toponimoak. Hortxe dugu gaskoin jatorria duen San Pedroko Salbio, gaur egun auzo izena, “plaia” edo “lohiatzko itsasertza” adieraziz:

“...de la Torre al Sableu y cai de San Matet ay 282 braçadas, 846 codos” (1494-1608).

“...dixo que de treinta años a este parte ha visto labrar arboles, algunos en el sitio y termino que llaman Vizcaya, y en el Sableo, jurisdiccion del dicho lugar del Pasage, parte de San Sebastian...” (1680).

Badira, baita ere, mendi aldekoak: horra euskal jatorriko San Juango Txurdir menditxoak:

“Venta de Catalina de Leço de una huerta que la compro la iglesia del Pasaje, año de 1549 a once de Julio... Por la parte de arriba, el camino publico que ba a Churdin” (1549).

Erroten inguruan dabilenik ere bada: Pasai Antxoko Molinao, esate baterako:

“...conviene, a saber, desde el agoa e arroyo de Molinao, que sube hacia donde viene a dar e demostrar el mojon e piedra antigua que fue por departiçion de los dichos terminos...” (1946)!

Eta deitura gisa dagoen jaiotetxerik ere bai. Hona hemen San Pedroko bataio eta ezkontza liburuetan diren hauek:

“Joanes de Martinbono (1541); Marta de Araneder (1546); Juanes de Askue (1561); Donmin de Trencher (1581); Marta de Illumbe (1586).”

Bai eta taberna izenak ere, esate baterako:

“Tabernas. Catalina Andia, por derechos de burdeos, ocho reales” (1634).

* * *

Bukatzen joateko, eta ondorio modura, labur-labur esan:

1. Pasaia toponimia kontserbatzailea dugu neurri handi batean. XVI. menderako dokumentatuak diren toponimo askok gure egunetararte eutsi diote: Arandoa, Azkuene, Bizkaia, Molinao, Salbio, Trintxer, Txurdin, Zamatete...

2. Euskal etimologiak nagusi azaltzen dira besteen aldean, eta toponimoek estudiatu ditugun mende guztietan zehar presentziarik badute.

3. Gaskoin jatorriko toponimoak guztira ehuneko zazpira ez dira iritsiko. Atzera jo ahala, ordea, beraien presentzia askoz ere garrantzitsuagoa egiten da eta, ditugun datuak ditugula: XVI. mendean ehuneko berrogeitamarrera erraz iristen direla esan dezakegu.

4. Bestetik, eta ditugun datuekin, pentsatzekoa litzateke, lanean azaldu ditugun toponimoei eta hizkuntza biziaren emaitzak diren hipokoristikoei begira, nolakoa eta norainokoa zen zehazten ez dakigun elebitasun egoera bat ezagutuko zela euskal toponimoen nagusigoak markatua dagoen garaia heldu zen arte.

5. Lexiko mailan, jasotako materialek eskaintzen dizkigute Azkueren hiztegiaren jasoak ez diren zenbait hitz.

Hona hemen Pasaian erabiltzen diren horietako batzu:

ERREKA, “marea behera dela, eta, gehienetan, itsasora ematen duten zenbait etxeren aurrean nahiz ondoan, agerian geratzen den eta harriz beterik egon ohi den lurra”.

PLAIA, “marea behean, agerian gelditzen diren badia barruko lohi beltzeko ertzak”.

PLATA, “kostako harrizko mendi malda luze eta zapalak”.

ZURRUN, Azkuek jaso egiten du hitz hau, jaso ordea, esannahia hauekin jasotzen du, besteak beste: “viga maestra”; “inflexible, tieso, seco”. Pasaian “etxe tarteko pasadizu estua” ere adieraziko luke:

“Mi estimado Salvador. A pesar de que estoy muy ocupado, pasaré hacia las once, para lo cual tengan ustedes abierta la puerta de la zurruna, a lo menos empujada, para que yo baje por ella” (1828).

* * *

Nire azalpen honi amaiera emateko eskerrak eman beharrean nago lan hau burutzen lagundu didaten guztiei. Eskerrak, Patxi Salaberri, Alfonso Irigoien, Ricardo Ciérbide eta Jose Maria Jimeno Juriori. Eskerrak, halaber, Xabier Portugal alkate jaunari liburua argitaratzeko eman duen laguntzagatik. Eskerrik beroe-

nak Endrike Knörr jaunari, eta bere bitartez Euskaltzaindiari, berak zuzentzen duen bilduma eder honetan parte hartu izana ohore bat izan delako niretzat. Eskerrik asko aurkezpen honetan parte hartu duten Jean Haritschelhar euskaltzainburuari eta gainontzeko euskaltzain jaunei. Eta bukatzeko, eskerrak ere gogoan ditudan eta era askotara lagundu didaten auzo eta lagun guztiei. Denoi mila esker.